

# **Bektoreek transmititutako gaixotasunei buruzko informazio-mapak 17/05/26**

Europako Batasunak eskatuta, EFSaren Animalien Osasun eta Ongizate Taldeak [36 mapa interaktibo](#) egin zituen, bektore bidez transmititzen diren gaixotasunen (VBD -ingelesezko siglak-) ezaugarri nagusiak laburbilduz. Mapa horiek webgunean ikus daitezke.

Adituen taldeak 36 VDBetako bakoitzak Europan sartzeko zuen arriskua neurtu zuen, banaka; zehazki, ganaduaren edo etxeke animalien mugimenduaren ondorioz sar daitezke. Horretarako, metodo erdikuantitatibo bat erabili zuten, arriskuaren alderdi esanguratsu guztiak kontuan izateko (MINTRISK eredua), baina EFSak Europara egokitua (VBD-RISK eredua).

VBD eragile guztietatik (36) zortzik bakarrik izan zuten EBn sartzeko moduko tasa globala (sarrera-tasa, bektorearen transmisioa eta establezimendua kontuan hartuta neurtzen da), eta tasa hori urtean 0,001 sarrera baino gehiagokoa dela kalkulatu zuten. Hona hemen zortzi VBD horiek: Krimea eta Kongoko sukar hemorragikoa, mihi urdinaren birusa, Nilo mendebaldeko sukarra, Schmallenberg birusa, Hepatozoon canis, Leishmania infantum, Bunyamwera birusa eta Highlands J birusa.

Zortzi gaixotasun horien urteko hedapena ebaluatu zen, eta EBn erabilgarri dauden prebentzio- eta kontrol-neurriak ezartzeko beharra zehaztu zen. Horrez gain, VBDen hibernatzeko aukera ere ebaluatu zen, baita osasun publikoan, animalien osasunean eta nekazaritzako ekoizpenean izan dezaketen eragina ere.

Gainerako 28 VBDen sarrera-tasa oso txikia zela ondorioztatu zen eta, horrenbestez, ez zen horiekin loturiko beste ebaluaziorik egin. Arriskua ebaluatzeko erabilitako parametro batzuek zalantzak sorrarazten dituzte eta gaixotasunaren egoera ezegonkorra da edo ezin da aurreikusi; hori dela eta, informazio gehiago eskuratutakoan ebaluazioa eguneratzea gomendatzen da.

Arriskuen ebaluazioa EBko eskualde handietarako eta VBD eragile asko aintzat hartuta egin zen; horrenbestez, lehen hautaketatzat baino ez da hartu behar. VBD jakin baten arrisku-ebaluazio zehatzagoa nahi izanez gero, nazio-mailakoa edo nazioz gaindikoa, EFSA-VBD-RISK eredua doan eskura daiteke.

[Vector-borne diseases - EFSA](#)

---

## **Kontrol ofizialei buruzko europar araudia argitaratu dute 17/04/19**

Apirilaren 7an **argitaratu dute DOUE L 94n Europako [Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 Araudia \(EB\)](#), 2017ko martxoaren 15ekoa**, elikagaien eta pentsuen legedia eta

animalien osasunari eta ongizateari, landareen osasunari eta produktu fitosanitarioei buruzko arauak aplikatzen direla bermatzeko egiten diren kontrolei eta jarduera ofizialei buruzkoa. Horren bidez, hainbat araudi eta zuzentarau aldaratzen dira.

Halaber, araudi berri horrek indargabetu egingo ditu 882/2004 eta 854/2004 araudiak (EE), 2019ko abenduaren 14tik aurrera.

Aurreko albisteetan aurreratu dugun bezala, honako hauek dira, besteak beste, araudi honetako berrikuntzak:

- Hedatu egin da aurreko araudiaren aplikazio-eremua, estaldura handiagoa emateko **Landareen Osasunari, animalien azpiproduktuei** buruzko arauari eta **iruzurraren** aurreikuspenari.
- Arau zehatzagoak ezarriko dira dagoeneko estalita dauden zenbait arlotan, besteak beste, **Animalien Osasunaren eta Ongizatearen** arloan.
- Kontrolaren betekizunak egokitu ahal izango dira **sektore bakoitzaren aplikazio-behar espezifikoaren arabera**.

[Araudi berriaren edukiari buruzko informazio gehiago](#) - ELikaren berria 2017/03/31

---

## **H5N5 eta H5N8 motako PHHGaren egoera Europan 17/04/19**

2016ko urriaren 28tik **2017ko apirilaren 3ra**, honako hauek jakinarazi dira Europan:

- **PHHGaren 1.095 foku etxeko hegaztietan**
- **49 gatibu dauden hegaztietan**
- **1.499 hegazti basatietan**

Ikusi txostena: "[Hegazti-gripearen egoera Eurpan, 2017ko apirilaren 3an](#)" - MAPAMA

[OIEk martxoaren 13ko txostenean](#) adierazi bezala, Ipar Hemisferioan gero eta handiagoa da neguan hegazti-gripearen agertzeko arriskua.

2016 eta 2017an, arrisku horren eraginez, **H5N8** kasu ugari agertu dira **Europan**, eta **H5N6** kasu ugari, berriz, **Asian**.

Urtaroaren araberako gorabeherak badaude ere, urte osoan zehar dago arriskua, birusa hegaztietan egonkortu baita eta bertan mantentzen baita.

Hala ere, azpimarratu beharra dago hegazti-gripearen andui zoonotikoak direla osasun publikoarentzat arriskutsuenak; andui horiek endemiko bilakatu dira Txinan (H7N9) eta Afrika zein Asiako hainbat eskualdetan (H5N1).

### **Espainiako egoera**

**Estatuaren eta Europar Batasunaren barruko mugimenduak mugatzen zituzten indarreko neurri guztiak kendu egin dira.**

2017ko otsailaren 23an, Kataluniako Generalitateko albaitaritzaren arloko agintariak **H5N8 motako PHHGaren foku bat hauteman zuten Gironako probintzian**, loditzeko ahateen ustiategi batean. Hurrengo egunetan, martxoaren 1era arte, beste 9 foku hauteman ziren, 8 Girona probintzian eta 1 Bartzelonan.

Berehala ezarri ziren legediak zehazten dituen honako neurri hauek: kaltetutako ustiategietako hegaztiak hiltzea, ustiategiak garbitzea eta desinfektatzea, eta 3 kilometroko babes-gune bat eta 10 kilometroko zaintza-gune bat ezartzea fokuen inguruan; gune horietan, hegaztien eta haien produktuen mugimendua murriztu zen.

Batzordearen 2017/417 (EB) Exekuzio Aginduaren arabera, **Espainian kalteak jaso dituzten lurraldeetako babes- eta zaintza-guneetako murrizketa-neurriek 2017ko apirilaren 1era arte egon behar zuten indarrean**. Egun hori iritsita, ez da gaixotasunaren kasu berririk hauteman; ondorioz, Estatuaren eta Batasunaren barruko mugimenduei jarritako murrizketa guztiak bertan behera gelditu dira.

**Beste herrialde batzuekiko merkataritzari dagokionez**, Lehorreko Animalien Osasun Kodeak 10.4.3 artikuluan xedatzen du herrialde edo lurralde batek bere osasun-estatusa berreskuratu ahal izango duela kaltetutako ustiategi guztiak desinfektatzen dituenetik hiru hilabetera. Hori dela eta, **Gironako probintziak eta Bartzelonako Ekialdeko eta Mendebaldeko Vallés eskualdeek beste herrialde batzuekin merkataritzan aritzeko mugak 2017ko ekainaren 2ra arte mantenduko dituzte**. Une horretan, beste kasurik hauteman ez bada, Espainiako lurralde osoak nahitaez aitortu behar den hegazti-griperik gabeko herrialdearen estatusa berreskuratuko du.

### **Espainiako legedia**

Joan den martxoaren 16an, [APM/233/2017 Agindua](#) argitaratu zen. Horrek APA/2442/2006 Aginduko eranskinak aldatzen ditu, eta bertan hegazti-gripearen aurrean babesteko neurri zehatzak ezartzen dira. Besteak beste, hau dio:

- **Hegazti-gripearen sartzeko arrisku handia duten guneak dira padurak, ibaiertzak, kostaldeak, aintzirak eta 1. eranskinean aipatzen den beste edozein hezegune.**
- **Arrisku faktoreak** dira 3. eta 4. artikuluetan zerrendatutakoak.

---

# **EFSAk berrikusi egin ditu mingain urdin gaixotasunaren kontrol-neurriak 17/03/10**

**EFSAk** argitaratu berri duen txostenean ondorioztatzen da **5 urteko txertaketa masiboko programak eta etengabeko zaintza-sistemak direla European ardien mingain urdin gaixotasuna errotik kentzeko neurri eraginkor bakarrak.**

Europako Batzordeak hala eskatuta, EFSako adituek mingain urdin gaixotasunaren kontrol-neurriak berrikusi dituzte, bai eta eremu infektatuen eta eremu askeen arteko animalien salerosketa segururako aukerak ere. Halaber, gaixotasunaren alderdi epidemiologikoei buruzko txosten zientifikoa eguneratu dute, batez ere transmisio-ereduari dagokion alderdia.

EFSAren txostenean ohartarazten da **mingain urdin gaixotasuna errotik kentzea oso zaila dela**, eta beharrezkoa dela gutxienez ondoz ondoko 5 urtez gaixotasun hori harrapa dezaketen behien eta ardien % 95 txertatzea. Txertaketa masiboko kanpaina horiekin batera, zaintza-sistema sentsibleak ere ezarri beharko dira. Sistema horiek kasuan kasu zehaztu beharko dira, kontuan izanik zaindutako eremu geografikoa eta gaixotasunaren fase epidemiologikoa; horrez gain, virusaren prebalentzia-maila baxuak (animalien % 1 baino gutxiago) hautemateko gai ere izan beharko dira. Hala ere, baliteke gaixotasuna txertaketa-kanpaina bukatu eta handik urte batzuetara berriz ere agertzea.

Halaber, adituek azpimarratu zuten animalia jaio berriek antigorputzak jasotzen dituztela amarengandik, eta horrek hiru hilabetez babesten dituela gaixotasunetik, gutxi gorabehera. Hala ere, antigorputz horiek eragina izan dezakete txertaketan; ondorioz, aldi horretan txertoak ez dira eraginkorrak. Kasu gehienetan, immunitatea oinarrizko txertaketa-eskemako bigarren dositik 21 egunera hasten da.

Beste alde batetik, gaixotasuna transmititzen duten eltxo-espezie batzuk urte osoan daude aktibo, batez ere negu epelak dituzten eskualdeetan, besteak beste mediterraneo arroan. Era horretako eremuetan, virusa edozein unetan transmiti daiteke. Eremu hotzagoetan, esate baterako, Europa iparraldean, eltxoak ez dira aktibo egoten neguko hiru hilabeteetan; aldi horretan, beraz, ez dago transmisiorik.

Datozen hilabeteetan, EFSAk ardien mingain urdin gaixotasun motak sailkatuko ditu, ezaugarrien arabera; hori baliagarria izango da babes- eta kontrol-neurri zehatzak identifikatzeko. Informazio hori 2017ko ekainean argitaratuko da.

[Mingain urdin gaixotasunari buruzko iritzi zientifikoa - EFSA](#)

---

# Europa abeletxeetako untxien ongizatea nola arautu aztertzen ari da 17/02/27

Gaur egun, **ez dago untxien ekoizpena (hazkuntza eta gizentzea) arautzen duen eta untxien ongizate-baldintzak bermatzen dituen legeria espezifikorik.**

Abeletxeetako untxiei aplikatu beharreko baldintzak abere-ustiategietako animalien babesari buruzko Europako [Kontseiluaren 58/1998 Zuzentarauan](#) jasotakoak dira. Baldintza horiek orokorrak dira abere-espezie guztientzat. Beste espezie batzuek, ordea, araudi espezifikoak dute, hala nola oilo erruleek, gizentzeko oilaskoek, txerriek eta hazkuntzarako txahalek.

Hain zuzen ere, untxien ongizaterako baldintza espezifikoak garatze aldera, **Europako Parlamentuak hau eskatu die Europako Kontseilu eta Batzordeari:**

- Hainbat neurri jasoko dituen **ibilbide-orri bat egiteko**, neurriok ordena kronologikoan jarrita; gutxienez, hau barne hartu beharko du:
- 1. **Jardunbide onak eta animalien ongizaterako arauak ezarriko dituzten gidalerroak.**
- 2. **Untxien osasunari, ongizateari eta ostatu-baldintzei dagokienez EB osoaren ikuspegiak bateratzeko proposamenak** egingo dituen Europako Batzordearen gomendio bat.
- Estatu kideekin batera, ekoizpenak etiketatzeko sistema argiak ezartzeko, eta kontsumitzaileentzako elikagaien informazioari buruzko etiketatze-sistemak erabiltzeko.

Bestalde:

- Estatu kideei proposatzen die gai honen inguruko xedapenak egiteko, Austrian, Belgikan, Alemanian eta Erresuma Batuan indarrean dauden xedapenekin bat etorriz.
- Adierazten du untxien hazkuntzari buruzko ikerketa zientifiko gehiago egin behar direla.

## **Abeletzeko untxiei buruzko zenbait datu**

- Untxiena da Europar Batasunean (EB) gehien hazten den **bigarren abere-espeziea**; hain zuzen ere, urtean 340 milioi untxi baino gehiago hiltzen dira.
- Hala ere, untxien ekoizpenak EBko guztizko **haragi-ekoizpenaren % 1,1 inguru besterik ez du hartzen.**
- Estatu kide gehienetan ez dago untxiak hazteko eta gizentzeko legeria espezifikorik, hauetan izan ezik:
  - Austria (2012, pilatutako kaiolak erabiltzeko debekua).
  - Belgika (2014, pixkanaka kaiolak erabiltzeari uzteko eta 2025erako parke-sistemak abian jartzeko araudia).
  - Alemania (2014, animalien ongizateari buruzko legeriaren hobekuntza, untxien hazkuntza espezifikoki arautuz).
  - Erresuma Batua (2007, abeletzeko animalien ongizaterako erregelamendua, untxien hazkuntzarako baldintza espezifikoak ezartzen dituena).
- Untxien ustiapenak kalte handia izan du EBko haragi-kontsumoaren beherakadaren eta krisi ekonomikoaren ondorioz. **Hiru urtean prezioak % 20 jaitsi dira**, baina ekoizpen-kostuek

berdin jarraitu dute.

- EBko untzien hazkuntzaren sektorea beherantz doa etengabe, eta **etorkizunerako proiektioek aurreikusten dute ekoizpena % 3,9 murriztuko dela**, untxi-haragiaren kontsumoak beheranzko joera baitu.
- Untzien hazkuntzaren sektorea merkatu globalaren egoeren araberakoa da, eta ez ditu baliatzen Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) I. zutabearen zehaztutako zuzeneko laguntzak edo merkatuko esku-hartzeak.

- [Abeletxeetako untzien ongizate-arauei buruzko txostena - Europako Parlamentua](#), 2017-01-30

---

## **7. Eguneratzea - H5N8 lehenengo kausa** **Kalatuniako ustiategi batean 17/02/24**

Joan den asteazkenean, otsailak 22, Algeteko Albaritza Laborategi Zentralak, Madrilen, baieztatu zuen **H5N8 motako hegazti-gripearen foku bat agertu zela gizentzeko ahateak hezteko aire zabaleko abeletxe batean, Gironako San Gregorio udalerrian**. Gizentzeko ahateak hazteko ustiategi hori sei nabetan banatuta dago, aire zabaleko parkeekin, eta adin desberdinetako 17.800 ahate inguruko errolda du.

Ustiategian gaitza agertu dela berretsi ondoren, 445/2007 Errege Dekretuak ezartzen dituen neurri hauek hartu dira:

- Ustiategia berehala geldiarazi da fokua eraldatu zenetik, eta erroldak eta azterketa klinikoa egin eta laginak hartu dira epidemiologikoki lotuta dauden ustiategi guztietan. Laginak laborategietan ikertzen ari dira gaur-gaurkoz.
- Inkesta epidemiologikoa egin da, fokua nondik etor daitekeen aztertzeko eta beste ustiategi batzuk mugimenduagatik arriskuan egon daitezkeen ikusteko.
- Gaitzaren eraginpeko ustiategiaren errolda osoa hil da, eta birusa tratamendu-planta baimendu batera heda lezaketen gorpuzkiak, pentsua eta gainerako materialak suntsitu.

Kataluniako Generalitatearen Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza eta Elikadura Sailak baieztatzen duenez, **lehen hipotesi gisa esan daiteke kutsatzearen arrazoiak litzatekeela birus-mota bat etortzea joan den asteartean topatutako zikoinaren birusarekin, batetik, eta ustiategia hegazti migratzaile ugari -eta, beraz, hegazti basati ugari- igarotzen diren eremu batean egotea**. Iturri horrek adierazi du CReSA Animalia Osasunaren Ikerketa Zentroari azterlan bat aginduko diola gaitza zehazki nondik datorren ikertzeko.

Katalunian, joan den asteartean, Los Aiguamolls del Empordàko Parke Naturalean hilda aurkitutako zikoina batean topatu zen fokua. Horren ondorioz, 3 kilometroko babes-eremu bat finkatu zen, eta eremu horretan dauden hiru hegazti-granjak geldiarazi ziren; granja horiek ere albaitarien ikerketapean daude. Bestalde, 10 kilometroko eremu batean hegazti basatiak ehizatzeke debekua ezarri da, eta hegazti basatien gaineko zaintza-mailak mantendu.

**Aurkikuntza horiek jakinarazteak ez dakar ez muga komertzialik, ez hegazti bizien edo haien produktuen mugimenduaren gaineko mugarik. Horrez gain, ez da uste osasun publikorako arriskurik dagoenik;** izan ere, birus osoaren sekuentzien analisisan oinarritutako

azterketa genetikoek erakusten dute hegazti-birus horrek ez duela gizakienganako afinitate berezirik. Gainera, birusa ezin da gizakiengana transmititu hegazti-haragi kozinatua, arrautzen edo hegazti-eratorrien bitartez. Biosegurtasunerako neurriak muturreraino eraman behar dira, ordea, gaitza etxeko hegaztiei transmiti ez dakien.

2016ko urriaren 28tik gaur arte, **Europar IAAPen 781 foku jakinarazi dira etxeko hegaztietan, 38 foku hegazti gatibuetan eta 972 foku hegazti basatietan.**

[Kataluniako Gobernuaren prentsa-oharra - 2017-02-23](#)

---

## **6 Eguneratzea - Frantzia neurriak indartzea** **17/02/22**

### **Birusaren egoera Europan**

2016ko urriaren 28tik 2017ko otsailaren 20ra bitartean, Patogenotasun Handiko Hegazti Gripearen 1.791 foku jakinarazi dira ofizialki Europan:

- 972 hegazti basatietan.
- 781 etxeko hegaztietan (ekoizpenerako hegaztiak).
- 38 gatibu dauden hegaztietan (zooak, etab.).

Foku horiek herrialde hauei eragin diete nagusiki: Hungaria, Alemania, Frantzia, Suitza, Bulgaria, Holanda, Danimarka, Polonia, Suedia, Erresuma Batua eta Errumania. Espainian, foku bat detektatu zen 2017ko urtarrilean, Palentzian, eta orain bigarrena, Katalunian. Bi fokuak hegazti basatietan detektatu dira.

Europako Batzordeak IAAParen H5N8 birusaren fokuen egoeraren mapa eguneratu bat argitaratzen du aldian-aldian ([17/02/15](#)). Europako Batzordearen arabera, H5N8 birus honek lotura du 2014. eta 2015. urteetan eskortako hegaztien artean hainbat agerraldi izan zituen IAAParen H5N8 birusarekin. Dena den, aldaketa genetiko batzuk ikusi dira, eta aldaketa horiek detektatu ziren 2016ko ekainean Errusian, zehazki Mongoliarekiko mugan, zeuden zenbait hegaztik zuten birusean.

### **Birusaren egoera Frantzian**

2017ko otsailaren 21ean, Frantzian 360 foku jakinarazi dira, horietatik 320 haztegietan eta 40 hegazti basatietan.

Haztegietakoko fokuak, departamentuka:

- LANDAK: 165
- TARN: 8
- GERS: 94
- LOT-ET-GARONA: 7
- PIRINIO GARAIK: 25
- PIRINIO ATLANTIKOAK: 15
- AVEYRON : 2

- DEUX-SÈVRES : 3
- GARONA GARAIA: 1

Hegazti basatietan aurkitutako fokuak:

- PAS-DE-CALAIS: 1
- SAVOIA GARAIA: 2
- TARN: 2
- MANCHE: 1
- AIN: 17
- LOT-ET-GARONA: 1
- LANDAK: 3
- GERS: 7
- LOIRE-ATLANTIQUE: 1
- PIRINIO ATLANTIKOAK: 3
- VOSGES: 2

## **Frantzia neurriak indartzea**

ANSES Elikadura Segurtasunerako Agentziak Frantzia IAAP birusa kontrolatzeko estrategia ebaluatu ondoren eman berri duen irizpena dela eta, Frantziako Nekazaritza, Elikadura eta Baso Ministerioak indartu egin ditu neurriak oraindik egonkortu gabeko eremuetan, bereziki, mendebaldeko Landetan eta Iparraldeko Pirinio Atlantikoetan. Neurri hau Europako araudiak ezarritako neurrien osagarri da, eta hegazti-dentsitate altuko eremuak babestea eta gaixotasunaren bilakaera prebenitzea du helburu.

Zehazki, Gers, Landak, Pirinio Atlantikoak eta Pirinio Garaiak hartzen dituen eremu mugatuan, 3 kilometrotik 10 kilometrora zabaldu da prebentzio-hilketen erradioa. Eremu horretan, hau erabaki da:

- Egiaztatuta dauden edo susmopean dauden foku guztiak hiltzea.
- Fokuaren inguruko 1 km-ko perimetroan: aire zabalean zein leku itxi batean dauden eskortako hegazti guztiak, hala merkataritzakoak nola merkataritzakoak ez direnak, prebentzioz hiltzea.
- 10 km-ra bitarteko perimetroan: aire zabaleko uretako hegazti guztiak prebentzioz hiltzea.

Garrantzitsua da aipatzea neurri hauek ez direla ezarri beharko oilaskoen eta oiloen ustiattegietan, eta, palmipedoei dagokienez, ezta biosegurtasun-baldintza jakin batzuk betetzen dituzten eta animaliak bizirik saltzen ez dituzten ustiattegietan ere. Hegaztiak hil ondoren, desinfektatu egin beharko dira instalazioak eta parkeak, eta, animaliak birpopulatzeko, baldintza zehatz batzuei jarraitu beharko zaie.

Aldi baterako kontrol-eremuak ere ezarri dituzte hegazti asko dauden eremuetan, nahiz eta birusik ez izan, egonkortu gabeko eremuen ondoan baldin badaude. Eremu horietan murriztu egin dute hegaztiekin mugitzeko duten aukera.

Abenduaren 5ean, Frantzia H5N8 birusaren hainbat agerraldi hauteman ondoren, arrisku "handiko" egoera ezarri zen lurralde osoan. Frantzia eta Europako hainbat herrialdetan bilakaera azkarra izan du gaixotasunak, eta birusa azkar ari da zabaltzen; hori dela eta, eskortako hegaztien ustiatgien titularrek, ehiztariek eta hegaztiekin harremanetan dauden pertsona guztiak hartu beharko dituzte babes-neurriak.



## **Birusaren egoera Spainian**

Algeteko Albaitaritza Laborategi Zentralak baieztatu du H5N8 motako Patogenotasun Handiko Hegazti Gripearean (IAAP) birusa detektatu dela Katalunian. Birusa zikoina basati batek zeukan. Infektatutako zikoina (*Ciconia cicoina*) hilda agertu zen otsailaren 6an, Castelló d'Empúries herrian (Girona), Parc Natural dels Aiguamolls de l'Empordá parke naturalean. Europako gainerako herrialdeetan birus horren epidemia dago, eta, horregatik, Espainiako Hegazti Gripea Zaintzeko Programa Nazionalaren barnean zaintza pasiboa areagotzeko ahalegina egin da. Horri esker aurkitu zuten infektatutako hegaztia. Honekin, bi dira orain arte Spainian detektatutako fokoak.

Aurkikuntza hori jakinarazi izanak ez du esan nahi merkataritza-mugarik ezarriko denik, ezta hegazti biziak edo haien produktuak mugituko direnik ere. Ez dute uste osasun publikorako arriskutsua izan daitekeenik; izan ere, birus osoaren sekuentzien analisisian oinarritutako azterketa genetikoek adierazten dute hegazti-birus honek ez daukala afinitate espezifikorik gizakientzat. Gainera, birusa ez da gizakiengana transmititzen kozinatutako hegazti-haragiaren, arrautzen edo horien eratorrien bidez. Alabaina, etxeko hegaztietara transmiti daiteke, eta horregatik hartu behar dira biosegurtasun-neurriak.

[2017-02-15eko egoera Europan](#)

[2017-02-21eko egoera Frantzian](#)

[Frantzian hartutako neurriak](#)

[ANSESeko txostena](#)

[Hegazti-gripear buruzko Europako Batzordearen webgunerako esteka](#)

---

## **Txekorrak antibiotiko-hondarrak dituen esnearekin elikatzeagatiko mikrobioen aurkako erresistentzia 17/02/09**

EFSAk, duela gutxi, aditu talde batek egindako txosten bat kaleratu du. Zehazki, hau eskatu zitzaien aditu horiei:

1. Azter zezatela zenbateko arriskua dagoen mikrobioen aurkako erresistentzia garatzeko abeletxeetan txekorrak antibiotiko-hondarrak eduki ditzakeen oritzarekin elikatzeagatik.
2. Azter zezatela zenbateko arriskua dagoen mikrobioen aurkako erresistentzia garatzeko, abeletxeetan txekorrak edoskitzaroan antibiotikoarekin tratatutako eta abstinentzia-aldian jertzitako behien esnearekin elikatzeagatik.
3. Proposa zezatela aurrez aipatutako arrazoiengatik mikrobioen aurkako erresistentzia garatzeko arriskua arindu dezaketen aukerak.

Antibiotikoak dituen esnea ezin da erabili giza kontsumorako, baina erabil daiteke txekorrak

elikatzeko.

EBko estatu kideetan ohikoa da esne-behiak tratamenduan egotea antzute-aldian eta edoskitzaroan. Gehien erabiltzen diren antibiotikoak penizilinak (bakarrik edo aminoglukosidoekin nahasita) eta zefalosporinak dira. Zenbat eta gehiago iraun antzute aldiak, orduan eta apalagoa izango da mikrobioen aurkako substantzien hondakin maila.

Aditu taldearen arabera, edoskitzaroan mikrobioen aurkako tratamendua egiten zaien behien esneak antibiotikoen hondarrak izaten ditu tratamenduak irauten duen artean eta abstinentsia-aldian. Txekorrek esne hori kontsumituz gero, mikrobioekiko erresistenteak diren bakterio gehiago botako dituzte gorozkiekin.

Zenbait aukera daude txekorrei esne horren bidezko elikadura murrizteko:

- Lehenik eta behin, garrantzi handiagoa duten eta kritikoki garrantzitsuak diren antimikrobianoek erasan behar zaie.
- $\beta$ -laktamen kontzentrazioa gutxitu dezaketen  $\beta$ -laktamasak erabili behar dira;  $\beta$  laktamak dira esne-behietan gehien erabiltzen diren antimikrobianoak.
- Esne gordinean edo oritzean bakterio erresistente gutxiago egoteko aukera nagusia inaktibazio termikoa da.

[Risk for the development of Antimicrobial Resistance \(AMR\) due to feeding of calves with milk containing residues of antibiotics-EFSA](#)

---

## 5 Eguneratzea - H5N8 IAAP European 17/01/23

### **Europako egoera**

2016ko urriaren 10etik 2017ko **urtarrilaren 16ra, patogenotasun handiko hegazti-gripearen (IAAP) H5N8 birusaren 953 foku jakinarazi dira** ofizialki Europan:

- 429 hegazti basatietan
- 510 eskortako hegaztietan (ekoitzitakoak)
- 14 gatibu dauden hegaztietan (zooak...)

Hurrengo taulan ikus daitezke 2017ko urtarrilaren 16rarte MAPA-mak ofizialki jakinarazitako fokuen kopuruak:

<b>Herrialdea</b>	<b>Agerraldi kop. hegazti basatietan</b>	<b>Agerraldi kop. eskortako hegaztietan</b>	<b>Agerraldi kop. gatibu hegaztietan</b>
Alemania	184	32 (4)	6
Frantzia	5 (2)	129 (15)	0
Italia	1	0	0
Holanda	37	9	4 (1)

Erresuma Batua	10	3	0
Irlanda	1	0	0
Danimarka	35	1	0
Grezia	1	1 (1)	0
Espainia	1 (1)	0	0
Austria	3	1	0
Finlandia	8	0	1
Suedia	12	2	0
Txekiar Errepublikak	2 (1)	6 (1)	0
Hungaria	8 (2)	226 (5)	2
Polonia	5	30 (2)	0
Eslovenia	3 (1)	0	0
Bulgaria	4	59 (13)	0
Errumania	10 (2)	2 (1)	0
Eslovakia	4 (3)	2 (1)	1
Kroazia	3	2 (1)	0
Serbia	4	3	0
Suitza	87	0	0
Ukraina	1	2	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>429 (12)</b>	<b>510 (44)</b>	<b>14 (1)</b>

*Iturria: [Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa \(2017ko urtarrilaren 16eko prentsa-oharra\)](#).*

Parentesi artean agertzen diren zenbakiak azken astean, 2017ko urtarrilaren 10etik 16era, jakinarazi diren fokuei egiten diete erreferentzia. Horien artean hauek nabarmendu behar dira: lehenengo fokua Irlandako hegazti basatien artean, Eslovakiako eskortako hegaztien artean eta Italian gatibu dauden hegaztien artean.

### **Europear Batzordea**

Europako Batzordeak IAAPren H5N8ren fokuen egoeraren mapa eguneratu bat argitaratzen du aldian-aldian, honako esteka honetan: [EBren mapa](#).

Europako Batzordearen arabera, egungo **H5N8 birusak lotura dauka 2014. eta 2015. urteetan eskortako hegaztien artean hainbat agerraldi sorrarazi zituen IAAPren H5N8 birusarekin**. Alabaina, zenbait aldaketa genetiko detektatu dira, eta horiek ikusi ahal izan dira, halaber, Errusian, Mongoliarekin muga, hegazti basatiek zituzten birusetan (2016ko ekainean).

Laborategiko azterketek aurrera jarraitzen dute Europar Batasuneko erreferentziako laborategian (Central Veterinary Laboratory New Haw, Weybridge, Erresuma Batua); dena den, laborategiak berak aurreratu du birus isolatu hori hegaztien dela nagusiki, eta ez daukala afinitaterik gizakientzat.

- [Hegazki-gripeari buruzko Europako Batzordearen orrialderako esteka](#)

# 4 Eguneratzea - Bi hegazti bazati H5N8

## IAAP-etarako positiboa eman dute

### Espainian 17/01/12

Algete-ko Laborategi Zentralak **hegazti-gripearen (IAAP) H5N8** birusaren detekzioa egiaztatu du joan den urtarrilaren 3an hildako **ahate bian, Palentzian**.

[MAPAMA-ko Komunikatu](#) baten arabera:

1. Basa hegaztiengako birusaren aurkikuntzak **ez du merkataritzarako murrizketarik ekartzen**.
2. **Ez da ikusten Osasun publikorako arriskurik dagoenik**.
3. Beharrezkoa da **biosegurtasun-neurriak** aplikatzea ([MAPAMaren Biosegurtasun-neurrien gaineko Liburuxka](#))

#### **Europako egoera**

2016ko urriaren 28tik 2017ko **urtarrilaren 10era, patogenotasun handiko hegazti-gripearen (IAAP) H5N8 birusaren 808 foku jakinarazi dira** ofizialki Europan:

- 363 hegazti basatietan
- 432 eskortako hegaztietan (ekoitzitakoak)
- 13 gatibu dauden hegaztietan (zooak...)

Hurrengo taulan ikus daitezke 2017ko urtarrilaren 17rarte MAPA-mak ofizialki jakinarazitako fokuen kopuruak:

<b>Herrialdea</b>	<b>Agerraldi kop. hegazti basatietan</b>	<b>Agerraldi kop. eskortako hegaztietan</b>	<b>Agerraldi kop. gatibu hegaztietan</b>
Alemania	140	27 (2)	5 (1)
Frantzia	3	95 (20)	0
Italia	0	0	1
Holanda	37	9	3
Erresuma Batua	10 (3)	3 (2)	0
Irlanda	1	0	0
Danimarka	35	1	0
Grezia	1	0	0
Austria	3	1	0
Finlandia	8	0	1
Suedia	12 (2)	2	0
Txekiar Errepublika	1 (1)	5 (5)	0
Hungaria	6 (2)	221(2)	2 (2)
Polonia	5	28 (6)	0
Eslovenia	1(1)	0	0

Bulgaria	3 (1)	32 (23)	0
Errumania	6	1	0
Eslovakia	1 (1)	1	1 (1)
Kroazia	4 (1)	1 (1)	0
Serbia	1	3	0
Suitza	84	0	0
Ukraina	1	2 (2)	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>363 (12)</b>	<b>432 (63)</b>	<b>13 (4)</b>

*Iturria: Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa (2017ko urtarrilaren 10eko prentsa-oharra).*

Parentesi artean agertzen diren zenbakiak azken astean, 2017ko urtarrilaren 3tik 10era, jakinarazi diren fokuei egiten diete erreferentzia. Horien artean hauek nabarmendu behar dira: lehenengo fokua Irlandako hegazti basatien artean, Eslovakiako eskortako hegaztien artean eta Italian gatibu dauden hegaztien artean.

### **Europear Batzordea**

Europako Batzordeak IAAPren H5N8ren fokuen egoeraren mapa eguneratu bat argitaratzen du aldian-aldian, honako esteka honetan: [EBren mapa](#).

Europako Batzordearen arabera, egungo **H5N8 birusak lotura dauka 2014. eta 2015. urteetan eskortako hegaztien artean hainbat agerraldi sorrarazi zituen IAAPren H5N8 birusarekin**. Alabaina, zenbait aldaketa genetiko detektatu dira, eta horiek ikusi ahal izan dira, halaber, Errusian, Mongoliarekin muga, hegazti basatiek zituzten birusetan (2016ko ekainean).

Laborategiko azterketek aurrera jarraitzen dute Europar Batasuneko erreferentziako laborategian (Central Veterinary Laboratory New Haw, Weybridge, Erresuma Batua); dena den, laborategiak berak aurrerratu du birus isolatu hori hegaztien dela nagusiki, eta ez daukala afinitaterik gizakientzat.

- [Hegazki-gripeari buruzko Europako Batzordearen orrialderako esteka](#)

EFSA, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza, irizpen zientifiko zehatz bat lantzen ari da, eta laster argitaratzea aurreikusten du.

### **Fokuen jatorria eta kronologia**

2016ko urriaren 28an, Hungariak jakinarazi zuen IAAPren H5N8 birusa detektatu zuela laku batean hilda agertutako hegazti basati batean (beltxarga arrunta).

Ordutik, birusa Europako hainbat herrialdetako hegazti basatietan detektatu da. Infektatutako hegazti basati gehienak ahate migratzaileen espezieak dira, eta itsaso nahiz lakuen ertzetan hilda agertzen dira.

2016ko azaroaren 4an, Hungariak jakinarazi zuen IAAPren H5N8 birusaren lehen agerraldia eskortako hegaztien artean; hain zuzen ere, Tótkomlós herrian izan zen, Békés konderrian. Ondoren, agerraldi gehiago egon ziren ustiategi asko dauden eremu bateko zenbait ahate- eta antzara-ustiategitan.

Ordutik aurrera, IAAPren H5N8 birusaren agerraldiak egon dira hainbat herrialdetan, bai eskortako

hegaztietan bai gatibu dauden hegaztietan: Alemania, Finlandia, Frantzia, Holanda, Polonia, Erresuma Batua, Danimarka, Finlandia, Austria, Suedia, Bulgaria, Errumania, Kroazia, Grezia, Serbia, Suitza, Irlanda, Eslovakia eta Italia.

## **Europar hartutako neurriak**

Kaltetutako estatu kideetako albaitaritza-agintaritzek berehalakoan hartu dituzte indarreko araudiak ezartzen dituen kontrol-neurriak: 2005/94/CE Zuzentaraua (EK), Kontseiluarena; neurri hauek ezartzen ditu:

- **Kaltetutako hegaztiak hiltzea.**
- **Babes- eta zaintza-guneak ezartzea kaltetutako ustiategien inguruan**, birusa beste hegazti-ustiategi batzuetara zabal dadila saihesteko.

## **Frantziako egoera**

2016ko abenduaren hasieratik, IAAPren H5N8 birusaren **89 agerraldi jakinarazi dira Frantziako abeltegietan**, batez ere hego-mendebaldean.

Frantziako agintariek 2017ko urtarrilaren 4an egindako [jakinarazpen ofiziala](#)ren arabera, osasun-egoera bilakaera desberdina izaten ari da hainbat eremutan: mugatutako zenbait eremu egonkortzen ari dira (bereziki Tarn, Aveyron eta Lot-et-Garon departamenduetan); alabaina, berrikiago baieztatutako agerraldiak barne hartzen dituen eremu bat ez dago egonkortuta oraindik. Eremu horretan sartzen dira Gers, Landak eta Pirinioak departamentuetako zati batzuk.

## **Hartutako neurriak**

Frantziako Nekazaritza Ministerioa eta Osasun Politiken Kontseilua bildu egin dira, eta egoera kontrolatzeko zenbait neurri estrategiko ezarri dituzte; besteak beste: **eremu jakin batean aire zabalean hazten diren hegazti palmipedoak (ahateak eta antzarak) hiltzea**. Eremu horretan sartzen dira Gers, Landak eta Pirinio Garaiak departamentuetako zati batzuk.

Neurri hori Europako araudian ezarritakoen osagarri da, eta helburu gisa du hegazti asko dauden eremuak babestea (Chalosse barne) eta gaixotasunak aurrera egin dezala saihestea.

Hegaztiak hil ondoren, instalazioak eta parkeak desinfektatu beharko dira, eta ondoren animaliekin birpopulatu, baldintza zehatz batzuei jarraituz.

Garrantzitsua da nabarmentzea neurri horiek ez dietela oilasko- eta oilo-ustiategiei eragiten, eta, palmipedoen artean, ezta biosegurtasun-eskakizun jakin batzuk betetzen dituzten eta animalia bizirik saltzen ez duten ustiategiei ere.

**Animaliak hiltzeko lanak urtarrilaren 5ean hasi eta urtarrilaren 20an amaituko dira**, eta Estatuak finantzatuko ditu. Horrez gain, ekoizpena eteteak dakartzan galerak konpentsatu egingo dira, egoera egonkortzen denean adostuko diren baldintzetan.

## **Badago arriskurik gizakiontzat?**

ECDCk (Gaixotasunak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Europako Zentroa) egindako eta azaroaren 18an argitaratutako arrisku-ebaluazioaren arabera, IAAP (H5N8) **birus zoonotikoa jendeari transmititzeko arriskua oso txikia da**.

Gaur arte, ez da birus horrekin infektatuko gizakiren baten kasurik jakinarazi mundu osoan.

Berriki analizatu diren zenbait H5N8 birusen genomaren sekuentzia osoek erakutsi dute, oraingoz, hegazti-birus horiek ez daukatela afinitate espezifikorik gizakientzat. Dena den, HA geneak H5N1 birusetatik eboluzionatu du; horrenbestez, gaixo dauden hegaztiekin kontaktuan dauden pertsonak infektatzeko arriskua izan dezakete.

Arrisku zoonotiko hori dela eta, kaltetutako herrialdeetan zenbait neurri aplikatzen ari dira:

1. Hegaztiengan gaixotasuna kontrolatzeko kontingentzia-planak ezartzea.
2. Norbera babesteko ekipoak ematea hegaztiekin kontaktuan egoten diren pertsoneri, arnasketak ekipoak barne.
3. Kaltetutako ustiatagietan egoten diren pertsonak edo infektatutako hegazti basatiekin kontaktu zuzena dutenak monitorizatzea hamar egunez, birusarekin zerikusia izan dezaketen sintomak identifikatzeko.

- [ECDCren 2016ko txostena: IAAP \(H5N8\) Arriskuaren Ebaluazio Azkarra](#) - 2016ko azaroak 18